



© Irene Galera

Emakumeok martxan eragin-estrategiaren
proposamena

EMAKUMEOK MARTXAN

Emakume migratzaileak,
eskubideak dituzten emakumeak

 **entreculturas**
ONG-JESUITA

sjm SERVICIO JESUITA
A MIGRANTES

 **ELLACURIA
FUNDAZIOA**
OIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL

 **alboan**
ONG-JESUITA FUNDAZIOA

1. Sarrera

Migrazioa mundu-mailako fenomeno da, eta hainbat mailatako gobernantza eskatzen du eragin positiboak ahalik eta gehien areagotzeko eta negatiboak murrizteko. Migrazio legal, seguru eta ordenatuaren aldeko 2018ko Itunak azpimarratzen duen moduan, arazoaren konplexutasunak jatorriko, bitarteko eta helmugako herrialdeen arteko lankidetzak eskatzen du, migratzaileak erdigunean ipintzeko eta euren giza eskubideak babesteko prozesuaren fase guztietan, migrazio-baldintzak edozein direlarik ere.

Gobernantza egokirik ezak eta genero-rol tradizionalak konplexutasuna eta gogortasuna handitzen dituzte emakume askok **indarkeriaren intersektionalitatearen** ondorioz abiarazten dituzten migrazio-prozesuaren fase guztietan, hau da, indarkeria eta diskriminazio mota ugari jasaten dituzte sexuagatik, generoagatik, arrazagatik, etniagatik edo klase sozialagatik, besteak beste.

Emakumeek arrisku espezifikoak egiten diete aurre mugitzen direnean (bidaian), eta aukera gehiago dituzte diskriminazio gehigarriak eta indarkeria jasateko euren bidaiari ekin aurretik (jatorrian). Behin helmugara iristean, aurre egin behar diete mota askotako indarkeriari eta eskubide-urraketei, emakumeak edo migratzaileak izateagatik edo arrazarekin, klase sozialarekin edo orientazio sexualarekin lotutako arrazoiengatik. Beraz, migrazioa feminizatzearen joeraren, bereziki Europan, jasaten dituzten indarkeria mota anitzen eta errealitate horiek eta bere ondorioak (pertsonek salerosketa, lan- eta sexu-esplotazioa, erakunde-indarkeria eta -diskriminazioak edo matxismoa eta arrazakeria instituzionala, besteak beste) ikusezin bihurtu eta normalizatzaren ondorioz, premiazkoa da arreta jartzea nazioarteko emakume migratzaileengan.

Premiazkoa da emakume migratzaileen errealitatearen berri ematea eta hura salatzea, modu integralean, herritarrak eta politikariak kontzientziatzeko, inplikatzeko eta mobilizatzeko, migrazio-prozesu osoan emakumeen eskubideak babesteko xedearekin. Horretarako, mugikortasun behartuaren egoeran dauden milaka emakumek jasaten dituzten indarkeria motak eta horien arrazoiak azpimarratu behar dira, jatorrian, bidaian eta helmugan.

Errealitate hori jorratzen dugu justizian, abegi onean, adiskidetzan eta erantzunkidetasunean oinarrituta, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta. Kausa honen xedea da migratzaileek, eta bereziki emakumeek eta neskatok, jasaten dituzten desberdinkerien eta eskubide-urraketen jatorria eta arrazoiak agerian jartzea, eta berdintasunean oinarritutako herritartasun globala eraikitzea sustatzea.

2. Emakumeok martxan (EM) ekimena

EMAKUME MIGRATZAILEAK, ESKUBIDEAK DITUZTEN EMAKUMEAK

Eskaera horrek proiektuaren nazioarteko begiradari eta genero-ikuspegiari erantzuten die, eskubideak baldintza berberetan lortzeko ezintasunak lotura baitu galdera hauekin: **Zergatik migratzen dute emakumeek? (jatorria) Zergatik ez daude babestuta bidaian? Zergatik diskriminatzen dituzte helmugan?**

Eskubideak baldintza berberetan lortzeko ezintasunak eragina du **jatorrian**.

- Genero-desberdinkeria eta indarkerien interseksionalitatea dira migrazio-prozesua abiarazteko arrazoiak: migrazio ekonomikoa, salerosketa, genero-indarkeria, emakumea gerra-arma gisa erabiltzea gatazketan, orientazio sexuala, Europako gobernuen eskaerak lan-merkatua okupatzeko (bereziki zainketen sektorean), etab.

Bidaian (fase anbigua da, mota ugari baitaude garraibidearen, mugitzeko moduaren, denboraren eta tokiaren arabera), eskubideak baldintza berberetan lortzeko ezintasunak badu eragina; izan ere, emakume izateagatik, genero-desberdinkerien eta migratzaile izatearen ondorioz, babesgabetasun-egoera handiagoa bizi dute:

- Bai hegoaldeko mugarako migrazioan, bai kontinenteen arteko edo barneko bidaietan eta bai errefuxiatuen esparruetan eta zentroetan...
- Migrazio-prozesuaren amaierako helmuga ez den hiri edo lurralde batean bizitzen direnean. Irregularitasun-egoerak emakumeen zaurgarritasuna areagotzen du: laneko esplotazioa, esplotazio sexuala, salerosketa-sareak...

Helmugan, eskubideak baldintza berberetan lortzeko ezintasuna honako hauetan islatzen da:

- Migrazioarekin lotutako nazioarteko, eskualdeko eta tokiko ordenamendu juridikoek eta administrazio nahiz harrera- eta integrazio-prozesu ugari ez dute gehitzen genero-ikuspegia, eta horrek erregularizazio-prozesuak zailtzea eta emakumeak berriro ere biktima bihurtzea dakar. Gainera, ahaztu egiten dira soilik emakume izateagatik migrazio-prozesu osoan zehar bizitako egoerak.
- Migratzeko arrazoia edozein dela ere, emakume migratzaile gehienek etxeetan edo zaintzen sektorean egin behar dute lan, prekariedade- eta irregularitasun-baldintza duingabeekin. Gainera, etengabe jasaten dituzte eskubide-urraketak eta indarkeriak.

Eskubideak baldintza berberetan lortzeko ezintasunak lotura du galdera hauekin: **Zergatik migratzen dute emakumeek? (jatorria) Zergatik ez daude babestuta bidaian? Zergatik diskriminatzen dituzte helmugan?**

Azaldutakoa kontuan hartuta, baieztatu dezakegu mundu- eta toki-mailako eredu eta egitura sozioekonomikoen botere-harreman desberdinek eta genero-erolek ere eragina dutela migrazio-testuinguru eta -esperientzietan. Egitura hierarkizatu eta desberdinen interrelazioaren ondorioz, emakume migratzaileek ezaugarri gisa indarkerien interseksionalitatea duten migrazio-prozesuak bizi izaten dituzte. Hau da, indarkeria eta

diskriminazio ugari jasaten dituzte, sexuarekin, generoarekin, arrazarekin, etniarekin edo klase sozialarekin lotuta, besteak beste. Errealitate horren aurrean, premiazkoa da migrazioarekin lotutako ordenamendu juridikoetan genero-ikuspegia gehitzea, hau da, nazioarteko babes-sisteman, eskualdeko esparru juridikoetan eta estatuko harrera- eta integrazio-politiketan, esate baterako.

3. Sinadurak biltzeko kausa.

Genero-ikuspegia gehitzea Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itunean.

Zergatik Europa?

Mundu osoko nazioarteko migratzaileen % 30,9 European bizi dira, eta azken urteetan migrazioaren feminizazioa hazi egin da. Izan ere, nazioarteko migratzaileen artean, emakumeen proportzioa handixeagoa da: % 51,6; gizonezkoena, berriz, % 48,4.

Termino absolutuetan, Alemania da European migratzaile gehien dituen herrialdea, eta azken urteetan igoera nabarmena hauteman du. Hurrengo postuetan daude Errusiako Federazioa, **Erresuma Batua, Frantzia, Espainia eta Italia.** (Portal de datos sobre migración, 2020)

Gainera, 2020an gora egin zuen mundu osoan gerren, gatazken, jazarpenen, giza eskubideen urraketen edo ordena publikoa kaltetzen duten ekintzen ondorioz **jatorritik alde egin behar izan zuten pertsonen** kopuruak. **Zifra 82,4 milioi pertsonara iritsi zen, eta % 48 emakumeak dira.** Zifra hori banakatuz gero, ikus dezakegu erdia baino gehiago (48 milioi) herrialdean bertan lekualdatutako emakumeak direla (IDP), herena inguru (26,4 milioi) errefuxiatuak eta 4,1 milioi asilo-eskatzaileak. **Mundu-mailan, Alemania da** errefuxiatu gehien dituen bosgarren herrialdea (ACNUR, 2021).

European, 2020an aurkeztutako asilo-eskaeren kopuruak behera egin zuen aurreko urteekin alderatuta. 2019an 721.090 pertsonak eskatu zuten asiloa European, eta 2020an **485.000** izan ziren. Beherakada hori COVID-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako mugikortasun-murrizketen ondorio da. Eskatzaile gehien izan zituzten jatorrizko herrialdeak hauek izan ziren: Siria (70.000), Afganistan (50.000), Venezuela (31.000), Kolonbia (30.000) eta Irak (20.000). Bost herrialde horiek European erregistratutako eskaeren ia erdia ordezkatzeko dute. Bestalde, **eskaeren % 63 soilik 3 herrialdetan aurkeztu ziren:** Alemania (EBko guztizkoaren % 25,1), Frantzia (% 19,2) eta Espainia (% 18,3) (EASO, 2021).

Hala ere, Europa askotariko migrazio-fluxuen helmuga da, eta hainbat arrazoiengatik gertatzen dira:

- Venezuela, Kolonbia edo Honduras herrialde latinoamerikarretako fluxuak; bereziki feminizatuta daude, eta gehiengoan helmuga Espainia da.
- Izan ere, Espainia da EBn asilo-eskaera gehien jasotzen dituen hirugarren herrialdea. Espainian asiloa eskatzen duten bost nazionalitate nagusiak latinoamerikarrak dira: Venezuela, Kolonbia, Honduras, Peru eta Nikaragua. Bost horien artean 70.406 eskaera egin dituzte, guztizko kopuruaren % 79. Zehazki, venezuelarren eta kolonbiarren eskaerak 55.961 dira, guztizkoaren % 63. Azpimarratu behar da Espainiako onespenez

tasa EBko txikiena dela; 2020an aldeko ebazpenak Espainian aurkeztutako guztien % 4,9 izan ziren, eta Europako batezbestekoa % 33koa da.

- Afrikako herrialdeetako fluxuak, Mediterraneoko ibilbideak erabilita, bereziki migrazio irregularra deritzona. Prozesu horietako pertsona gehienak gizonak dira. Emakumeek zaugarritasun-baldintzetan bidaiatzen dute, etengabeko babesgabetasun-egoeran baitaude bideetan, errefuxiatuen esparruetan edo euste-esparruetan, txalupa bat lortzeko aukeretan edo salerosketa-sareetan erortzeko aukeretan.

Mediterraneoko bideak: Migrazio irregularra itsasoz eta lurretik (2019-2021)									
	2019			2020			2021		
	Guztira	Itsasoz	Lurrez	Guztira	Itsasoz	Lurrez	Guztira	Itsasoz	Lurrez
Europa	128.536	103.836	24.636	99.907	85.809	13.666	151.417	112.747	33.296
Espainia	32.513	26.168	6.345	41.861	40.106	1.755	50.194	39.422	10.772
Italia	11.471	11.471	-	34.154	34.154	-	67.040	67.040	-
Grezia	71.386	62.445	8.941	14.785	9.238	5.547	8.327	4.060	4.267

- Asiatik, eta zehazki Ekialde Ertainetik eta Afrikako ipar-ekialdetik, non gatazka armatuen gorakadak migrazio-fluxuak areagotu dituen. Gehienetan, testuinguru horretako migrazio-fluxuak herrialde mugakideen artean gertatzen dira. Hala ere, azpimarratu behar da Europako mugen kanporatze-politiken ondorioz Europa dela milioika pertsona seguruak ez diren hirugarren herrialdetara bidali izanaren erantzuleetako bat.

Testuinguru horretan, migrazio-arloan politika komun bat garatzeko xedearekin, 2020an Europako Batzordeak **Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itunaren** proposamena aurkeztu zuen. Nahiz eta Ursula Von Der Leyen-ek proposamena “EBko migrazio- eta asilo-politikarako hasiera berritzat” jo zuen, ez du giza baliabideen babesa bermatzen, eta lehentasuna ematen die itzulerarekin, mugen kanporatze eta segurtasunarekin eta migrazioaren kriminalizazioarekin lotutako politikari.

Proposamenaren ikuspuntuak alde batera uzten ditu hainbat nazioarteko itun, besteak beste Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioa (1951) eta Dublingo Hitzarmena (1995). Itun horiek behartu egiten dituzte estatuak giza eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzera.

Europako testuinguru horrek eta emakumeen migrazio-prozesuen errealitate globalak eskatzen dute arreta jartzea Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itunean. **Zergatik?**

- Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itunak kanporatze-, kaleratze-, militarizazio- eta “segurtasun-politikak” indartzen dituelako elkartasunarekin, babesarekin, defentsarekin eta giza eskubideekiko errespetuarekin lotutako politiken aurrean, eta azken horiek dira, hain zuzen ere, egungo migrazio-testuinguruak eskatzen dituenak.

Politika horiek migrazio-prozesuen babesgabetasuna iraunarazten dute, eta alde batera uzten dute migrazio legal, seguru eta ordenatuaren aldeko 2018ko Ituna. Azken horrek jatorriko, bitarteko eta helmugako herrialdeen arteko lankidetzak eskatzen du, migratzaileak erdigunean ipintzeko eta prozesuaren fase guztietan euren giza eskubideak babesteko, migrazio-baldintzak edozein direlarik ere.

- Izan ere, “aukerako elkartasunarekin” eta “talentuen bilaketarekin” lotuta proposatutako neurriek migrazioa modu merkantilista eta utilitaristan erabiltzen dute:

Irregularitasuna iraunarazten du eta prozesu burokratikoak oztopatzen ditu nazioarteko babesaren eta asiloaren eskaeretan. Genevako Konbentzioa eta Dublineko Hitzarmena urratzen ditu

- 2019an aurkeztutako txosten batean, migratzaileen giza eskubideei buruzko errelatore bereziak aitortu zuen “migrazioa genero-kontuek eragindako fenomeno bat dela”, eta ikuspegi hori ulertzea eta gehitzea “lagungarria izan daitekeela estatuentzat emakume eta neskato migratzaileak babesteko diskriminazioaren, gehiegikerien eta generoan oinarritutako eskubide-urraketen aurrean, migrazioaren etapa guztietan”. (Asamblea General, 2019)

Ilido horretan, 2020an, Europako Batzordeak, onartu ondoren estatu kideetako batek ere ez duela oraindik erabateko genero-berdintasuna lortu, *Genero Berdintasunerako Estrategia 2020-2025. Europa berdintzale baten alde* onetsi zuen. Neurri espezifikoek planteamendu dual batean oinarritu zen, genero-berdintasuna lortzeko. Horrez gain, genero-ikuspegiaren integrazioa handitu zen. Gainera, generoaren eta bestea diskriminazio-arrazoi batzuen interseksionalitatea EBren politika guztien bidez jorratzeko konpromisoa hartzen du. (Comisión europea, 2020)

Bestalde, Europako Parlamentuak *Genero-berdintasunari buruzko Ebazpena EBren kanpo- eta segurtasun-politikan* dokumentua onetsi zuen, eta bertan adierazten du genero-ikuspegia aplikatu eta integratu behar dela, printzipio horizontal gisa, EBren jardura eta politika guztietan. Horretarako, genero-ikuspegiaren integrazioa Kanpo Ekintzako politika eta sektore guztietan sustatu eta finkatzea proposatzen du, eraldaketaren ikuspegi hirukoitzetik, eskubideetan oinarrituta eta interseksionala. (Parlamento Europeo, 2020)

Genero-desberdinkeria eraginari buruzko oharra, indarkerien interseksionalitatearen errealitatea eta aipatutako estrategietan zehaztutako helburuak gorabehera, EBren Migrazioari eta Asiloari buruzko Itunaren proposamenak ez ditu behar beste aipatzen emakumeek jasaten dituzten eragin desberdinak edo mekanismoetan genero-ikuspegia gehitzea.

Hala ere, **Itunak behin bakarrik aipatzen ditu berariaz emakumeak eta neskatoak, sexu-esplotazioarako salerosketaren biktimak edo beste genero-indarkeria batzuen biktimak bihurtzeko arriskuarekin lotuta.**

Azken finean, babesgabetasuna iraunarazten duten politikek, emakumeek migrazio-prozesuetan jasaten dituzten eragin desberdinekin eta indarkeriekin batera, justifikatu eta argudiatu egiten dute Europako ordenamendu juridikoan genero-ikuspegia sartzeko premia. Prestaketa-prozesuan dagoenez, azpimarratzen dugu, zehazki, beharrezkoa dela EBren Migrazioari eta Asiloari buruzko Itunean genero-ikuspegiak indartu eta egokitzea, migrazio-prozesuen fase guztiei eragiten dieten desberdinkeria sozial estrukturalen eta politika diskriminatzaileen arteko interseksionalitatea aintzat hartuko duen migrazioaren alde egiteko.

GOMENDIOAK ETA ESKAERAK

EBren Migrazioari eta Asiloari buruzko Itunean genero-ikuspegia indartu eta egokitzeko xedearekin, gomendio eta eskakizun hauek aintzat hartzeko premia azpimarratzen dugu.

1. **Genero-ikuspegia aintzat hartuko duten neurriak hartzea**, estatuek konpromisoa har dezaten emakume eta neskato migratzaileak diskriminazioaren, gehiegikerien eta generoan oinarritutako eskubide-urraketen aurrean babesteko migrazioaren etapa guztietan.
2. **Genero- eta eskubide-ikuspegi interseksionalaren aldeko neurri politiko integralak** gehitzeko eskatzea, modu integralean erantzuteko egungo proposamenak dakarren giza eskubideen eta emakume migratzaileen eskubideen atzerakadari.
3. **Jatorriko, bitarteko eta helmugako herrialdeen arteko lankidetzaren** alde egitea mugen kanporatzea eta segurtasuna indartzen duten neurrien aurrean, migratzaileak erdigunean jartzeko eta euren giza eskubideak prozesuaren fase guztietan babestuko direla bermatzeko migrazio-baldintzak edozein direlarik ere. Bereziki kezagarria da disuasio-politikek salerosketaren xede bihurtzen diren emakumeengan duten eragina. Horrez gain, batzuek migrazio-prozesuei seme-alabekin ekiten diete; beste batzuek haurdun ekiten diote prozesuari, eta beste batzuk, bortxaketen ondorioz, haurdun gelditzen dira bidean.
4. **Mugako prozedurak bizkortzeko neurria berriro planteatzeko** eskatzea, giza eskubideen eta emakumeen eskubideen atzerakada eragiten baitu. Mekanismo horrek atxilotze-zentroak sortzea dakar, eta frogatu da zentro horietan ez direla betetzen giza eskubideak; gainera, emakumeak bereziki kalteberak dira gune horietan. Horrez gain, generoaren arabera kalteberatasuna identifikatzeko denbora eta baliabideak mugatzen ditu: salerosketa, sexu-indarkeria bidean eta genero-arrazoen ondorioz ihes egitea. Azken horrek oztopatu egiten du urraketa nahiz indarkeriak aintzatestea eta asiloa eskatzea.
5. **Genero-ikuspegiko prestakuntza-ekimenak** ezartzea nahitaez, migrazio-prozesuko edozein etapatan sartuta dauden pertsona, erakunde, agentzia edo zerbitzu guztientzat, giza eskubideen atzerakada saihesteko eta eta migrazio-prozesuan zehar agintariak edo administrazio publikoek emakumeak eta neskatoak berriro biktima bihurtzea eta tratu diskriminatzailea ematea ekiditeko.